

Bidez bide hausnarrean. Zenbait gogoeta eta omenaldi filosofiko. Pentsamendu feminista filosofiarako sarrera batean.

Agustin Arrieta Urtizberea
EHU-UEU, 220 or.
Bilbo, 2023

Aurrekoan *Gogoeta-bide irekiak* (2019) bilduman egin zuen legez, liburu honetan ere gizartean arreta eta eztabaida erakarri egiten duten hainbat gairen gaineko azalpenak eta hausnarketak bildu ditu Agustin Arrieta EHUko Filosofia irakasleak. Askatasuna, diziplinartekotasuna zein fikzioa izan, kezkarriak izan daitezkeen zenbait gairi heldu die egileak berriz ere, bere ezaugarri den idazkera argi, analitiko eta soilean.



1. irudia. *Bidez bide hausnarrean* argitalpenaren azala.

Besteen beharrik gabeko hiru atalez osatutako lana eskaini digu oraingoan Arrietak. Liburua, beraz, ez da lan osoa, hainbat lan txikiren bilduma baizik —lan txiki orok bakarrik irakur daitekeen kapitulu osatzen du, eta kapitulu mordoek, atalak—. Horixe da, hain zuzen, lanak batasuna izateko duen gabezia, zentzurik duen arren. Eta zentzuaren bide horri helduko diogu guk hemen. Izan ere, Arrietaren beste zenbait lanen ondoan jarriz gero, *Bidez bide hausnarrean* testu interesgarri zein erabilgarria bihur dakiguke.

Aipatu dugun *Gogoeta-bide irekiak* bilduma, lau atal nagusitan banaturik dago, eta honako gaiak jasotzen ditu. Lehen atalean (19-102), artea, fikzioa eta (in)moralitate. Bigarren (103-52), zientzia, egia, objektibotasuna, pentsamendu feminista eta eszeptizismoa. Hirugarrenean (153-202), gizakia, natura, kultura eta (in)determinismoa. Eta, laugarrenean (203-74), hezkuntzan erlijio, etika, feminismo eta diziplinen arteko uztarketa.

Oraingo liburuak beste hartan landutako hainbat gai berriz ere lantzen ditu. Lehen atalean (15-86), aurrekoan legez, arteaz, fikzioaz eta (in)moralitateaz dihardu egileak. Hirugarrenean (151-208), Bertrand Russell, Susan Haack eta David Hume egileen ekarpen batzuen gaineko iruzkinak jaso ditu. Russell eta Hume ondo ezagunak egingo zaizkio Arrietaren testuak aspalditik jarraitu dituenari. Haacki eskainitako testuak, ordea, balio berezia dauka, epistemologiaren gaineko gogoetaren aurrean pentsamendu feministak zientzia positiboaren eremuari egindako ekarpena lantzen baitu, eta horrek ondo aberasten ditu bai *Gogoeta-bide irekiak*, bai *Bidez bide hausnarrean* liburuetakoa bigarren atalak. Oraingo liburuaren ekarpen nagusia hor dago, hain zuzen ere, «Pentsamendu feminista filosofiarako sarrera batean» (87-150) izeneko bigarren atalean. Bertan epistemologia, metafisika, etika eta estetikaren arloetan gogoeta feminista mendebaldarrak egindako zenbait ekarpeni heltzen die egileak. Bigarren atal hori da, ondorioz, liburuan ugariena.

Esandakoak argitu egiten du liburua bilduma bitxia zergatik den, eta haren izenburua luze eta nahaspilatsua zergatik den. Izan ere, liburuak bi azpтитulu dauzka. Lehenak, barneko lehen eta hirugarren atalei izen ematen die azalean: gogoetak eta omenaldiak. Bigarrenak, bigarrenari. Izenburuak adierazten dio irakurleari, beraz, hasieran adierazitako liburuaren batasun gabezia, baita egilearen obra ulertzeko zentzu-iradokizuna ere.

Izan ere, «Pentsamendu feminista filosofiarako sarrera batean» tituluak beste nonbaitera ere eraman gaitzake. Alde batetik, izen berarekin egileak *Jakinen argitaratutako artikulura* (2022), eta, bestetik, urteak lehenago egileak idatzitako *Filosofiarako sarrera bat* (2015) gidaliburura. *Bidez bide hausnarrean* liburuan, hortaz, Arrieta hiru zereginetan ari da: hausnarketa borobilak ez baina gogoeta-pizgarri izan daitezkeen testuak ematen, atsegin eta esanguratsu zaizkion egileei bide egiten, eta izaeraz borobila izan beharko lukeen lana osatzen. Lan horrek bere eginkizun handietako batekin lotura zuzena du, egileak hitzaurre batean baino gehiagotan azaldu duenez: unibertsitateko lehen mailetako ikasleei filosofiarako sarrera egitea.

Ekimen horrek, bestalde, izaera zabalagoa dauka: filosofia euskaraz egitea, eta, horretarako, hasi berriaren hegitik, ikaslea filosofian euskaraz murgiltzea. Asmo bikoitz eta garbi horren adierazle dira Joxe Azurmendik eta beste hainbat pentsalari eta egile aski ezagunek prestatutako *Filosofiako gida. Filosofian aritzeko oinarriak: gida bibliografiko eta metodologikoa* (2004), eta Arrietak berak Ibon Uribarriekin koordinatutako *Filosofiaren historia* (2008). Baita Arrietaren euskal luma edo tekladunak ezagutarazteko ardura ere, egoki deritzon euskal pentsalariak aipatu egiten baititu.

Bidez bide hausnarrean, hortaz, ondutako modernitatearen emaitza da. Egilearen berrazterketa da, garaiko zenbait begiradaren arabera egileak bere lanaz egiten duen berrikuspena. Begirada nagusia pentsamendu feminista da. Egilearen hitzetan: «Nire ibilbidean, emakumeak erreferentzia akademiko-filosofiko gisa ez dira apenas agertu [...] Unibertsitateko gradu berriak abian jarri zirenean, *Filosofiako sarrera* izeneko ikasgaia ematen hasi nintzen lehenengo mailan. Ikasleek (eta beste pertsona batzuek) begi-bistan jarri zidaten *emakumeen desagerpena* filosofiaren zirkuitutik. Emakume filosofoei lotutako hutsune edo gabezia hori bete edo zuzendu nahian, pentsamendu feministak zer-nolako ekarpenak egin dizkion edo egin diezazkiokeen filosofiarako sarrera bati agerian utzi nahi izan dut lan honetako bigarren zatian» (9).

Zuzenketa-asmo horrek, gainera, hitza hartzeko edo indartzeko lagun izandako autoreen justifikaziora ere eraman du Arrieta. Hala, irakasle intelektual izandako zenbaitekiko «zor batzuk kitatu nahi izan» dituela (9) esatearekin batera, berarentzat «zertan eta zergatik izan diren garrantzitsuak» (9-10) azaldu nahi izan du. *Bidez bide hausnarrean* liburuak, beraz, eszeptizismo eta errebisionismoaren argitan zentzua lortzen du. Garai postmodernoaren lerroarekin bat, ez dago narratiorik, saiakerarik edo ibilbiderik. Hasieraren berdina ez den helmugarik. Zuzenaren eta okerraren artean, eta haien balizko testuinguruen gainean, kokatzen gaitu une oro, eta begirada zorroztera gonbita egiten du. Baina zorroztasunak epaia besterik ez dakar, eta filosofia ez litzateke horretara soilik mugatu behar. Mozketak, judizio zein apurketa izan, bidea eten egiten du, ebatsi egiten duelako.

Filosofia hori baino gehiago da, berez, diskurtso dialektikoaren mailan ere. Are gehiago, modernitate aurreko argitan, barne-eraldaketarako bidearen izaera duenean. Eta horixe da filosofiako edozein sarrera edo historian agertu beharrekoa: (post)modernoak ez den tankera edo jardunbide filosofikoz egindako atal bat behintzat. Barne-suz piztutako ikasleari edo hasi berriari ziurtasuna, egia eta hazkundera nola aurki daitezkeen azalpena zor zaio; errealitatea eta giza adimena esaten ohi dena baino sakonagoak direla adierazten duen testua, begirada garbitu egiten duen gogoeta filosofikoa. Eta, horrekin bat, oihartzun luze eta sakoneko hitzen bat, bere lehengo adieraz: *kósmos*, *nóēsis*, *psyché*. Zirrara ezagutu duen eta jakin-minez dagoenari filosofia pentsamenduak harrapatzeko eta itotzeko kontzeptu-sare eta analisisa baino gehiago ez dela —eta ezin dela izan— erakustea oker handia dateke. Injustiziarik baldin badago hauxe da: bai filosofia, bai bizitza berri(tzaile)ak ez diren adieretan ulertzen ez uztea.

Berez eta antzinako tankeraz, filosofiak bi galdera nagusirekin lan egiten du: nor garen eta zer dagokigun. Nortasuna eta haren munduaz besteko iturriarekiko harremana. Bi-biak barne-bidaiaz argitu eta aurkitu beharrekoak. Baina natura gordinaren mekanika eta gizarte-erakundearen eraketa sekularra pentsamenduaren abiapuntu eta ortzi muga direnean, ezin daiteke munduaren berezko zentzuaz hitz egin, edo ideiek giza gogoari ezer zor ez diotela esan. Gaur egun ere, ordea, gutxieneko edozein giza bizipenek erakusten du giza gaiek organismotik makinatik baino gehiago daukatela, eta deseraiki ezin dela eraitsi egin gabe.

Bidez bide hausnarrean liburua, beraz, kontzeptuzko teoriaren analisiak eta sistemen sormen-apurketaren ariketak eskaintzen dizkio irakurleari. Susmoa eta garratzasuna eragiteko testu onak biltzen ditu. Balioen balioaz arduratuta dagoenari egunean egoteko azalpen eta pentsabideak zehatz eta sistematikoki azaltzen dizkio, zuzentasunaz keinuak egingo dizkio. Beste askori, ordea, hausnarketari ekiteko eta filosofiaren bide arteza bilatzen jarraitzeko gogoia sendotuko dio, bidez bide noraezean edo nahaspilan ibili beharrik gabe.

Erreferentziak

- Arrieta, Agustin eta Uribarri, Ibon (koor.) (2008). *Filosofiaren historia*. Elkar.
- Arrieta, Agustin (2015). *Filosofiako sarrera bat*. UPV/EHU.
- Arrieta, Agustin (2019). *Gogoeta-bide irekiak*. UPV/EHU.
- Arrieta, Agustin (2022): Pentsamendu feminista filosofiarako sarrera batean. *Jakin*, 248-249, 49-60.
- Azurmendi, Joxe; Bengoetxea, Juan Bautista; Garmendia, Joana eta Iñaki Soto (argtz.) (2004). *Filosofiako gida. Filosofian aritzeko oinarriak: gida bibliografiko eta metodologikoa*. UEU. <https://www.buruxkak.eus/liburua/filosofiako-gida-filosofian-aritzeko-oinarriak-gida-bibliografiko-eta-metodologikoa/182>

Jon Mentxakatorre Odriozola
Mondragon Unibertsitatea